



**Factoria de Fuegos kolektiboak** eta **Baratza Aretoak SC RATXE Gauaren #14.** edizioan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Gasteizko **Baratza Arteoan** izango da, **IRAILAREN 26ean.**

Irakur itzazu deialdiaren oinarriak eta bidali zure proposamena [scratxe@salabaratza.com](mailto:scratxe@salabaratza.com) helbidera **EKAINAREN 30a BAINO LEHENAGO.**

Artista Eszenikoen **BILA** gabiltza: sortzaileak, interpreteak, zuzendariak, performerrak, antzerki konpainiak, koreografoak, dantzariak... sortze prozesuan dauden proiektu eszenikoak aurkeztu nahi dituzten artistak, hain zuzen.

Publikoaren aurrean ideia berriak **FROGATZEKO** aukera paregabea da, sorkuntza zaharrak berreskuratzeko momentua edota ohiko formatu eta lekuetan erakusteko zailak diren ez-ohiko proposamenak aurkezteko lekua.

Gainera, erakusket ondoren egingo den **TOPAKETAN** era informal batean, zure lana publikoarekin zein beste artistekin eztabaidatzeko eta aztertzeo aukera izango duzu.

Esperimentu eszenikoak, prozesuak, garapenean dagoen materiala "funtziona dezaketen ideia bitxiak". Arraroa, magikoa, ustekabekoa... hitz bakar batean:

## **ETORKIZUNA**

Scratxe Gauei buruzko info gehiago: [www.factoriadefuegos.com](http://www.factoriadefuegos.com)

Baratza aretoari buruzko info gehiago: [www.salabaratza.com](http://www.salabaratza.com)

Jarraian, irakur itzazu oinarriak arretaz.

## BALDINTZA OROKORRAK:

### *sarrera*

Etorkizuna zalantzarria da eta ez dakigu gure programazioa beti bezala aurrera eraman ahal izango dugun. Sarbidean, edukieran, publikoaren kokapenean eta babes ekipamenduetan aldaketak aurreikusten ditugu. Goiz da arau ofizialak zer ezarriko duten jakiteko baina ezjakintasun momentu hauetan ere moduak bilatu nahi ditugu kalitatezko esperientzia eszenikoa eskeintzeko asmoz. Hau da, Scratxe Gauda betiko datetan gertatuko da baina formatuak ezberdinak izango dira. Hortaz, aurtengo ekimenaren deialdia egokitu dugu testuinguru soziala eta artistikoa isladatua gera dezan.

Artisten sormen potentzialean konfidantza daukagu eta denboraldi hauetan helarazi ahal diguten proposamen eszeniko esperimental eta alternatiboak entzun nahi ditugu. Hortaz, munduak bizi duen salbuespeneko momentu honek planteatzen duen marko kreatiboa erabiltzera animatzen zaituztegu.

Zer mugitu gaitu konfinamenduak? Zer esperimentatu du gizarteak ikustezin izate baten aurrean? Esperientza honen ostean, nora garamatzate gure imajinarioek? Zein funtzio dauka arteak aldaketa momentu honetan? Hauek artisten barrunbeak ateratzeko estimulo bezala erabili ahal diren galderak dira eta testuinguru baten barruan kokatu ahalko dira bai eduki edo forma moduan.

1. Proposamenek ezin dute 20 minutu baino gehiago iraun.
2. Behar teknikoak xumeak izan behar dira eta izena emateko fitxan zehatu beharko dira
3. Proposamen estiloa eta formatua libreak dira, beti ere ARTE ESZENIKOEN mugen barruan sartzen direlarik. Proiektuak haien kalitate eta sormenagatik baloratuko dira.
4. Aurten, egungo egoerari erantzun bat aurkezten dituzten proposamenak bereziki baloratuak izango dira. Bi eratan baloratuko ditugu:

- Eduki mailan. Ez dugu edizio distopikoa bilakatu nahi baina Scratxe gauda publikoarekin izango dugun lehenengo ekimena izango da beraz, nola bizi izan duzuen, ireki diren munduaz edota nora joan nahi dugunaz hitz egiteko libre sentiarazi nahi zaituztegu.

- Formatuei dogienez, lanean gabiltza eta informatuko zaituztegu. Intentzioa aretoa beti bezala betetzea da baina ezinezkoa izaiez gero topaketarako alternatibak bilatu nahi ditugu. Hortaz, zentzua izan ahal duen ideien bat daukazu? Podcast, bideo, etxean jolas-teko jokoren bat, eskafandra diseinuak edo horrelakorik bururatzen al zaizu? Ez ditugu zuen proposamenak baldintzatu nahi baizik eta "kutxatik kanpo" egon ahal diren aukerak pentsatzera eta baloratzera.

5. Hurrei zuzendutukako proposamenek ez daukate lekurik.
6. Antolakuntzak espazioa prestatuko du eta piezaren muntaian eta ejekuzioan laguntza eskainiko du. Eszenografia, objektuak eta behar tekniko bereziak artistaren ardura izango dira.
7. 4-6 artista/konpainia ezberdinek espazio eszeniko berdina partekatuko dute. Bi piezen arteko aldaketa, gehienez, 10 minutukoa izango da.
8. Muntaia eta froga egiteko denbora gutxienez ordu 1ekoa eta gehienez 2 ordukoa izango da.
9. Antolakuntzak 300€ eta eguneko janaria ordainduko dizkie artista edota konpainiei. Gasteiztik kanpoko lekuetatik datozeinei lo egiteko lekua emango zaie eta bidaiak ordaintzeko diru minimo bat egongo da. Diru hau, artista guztien arabera baloratuko da. Fakturakak aurkeztu beharko dira.
10. BARATZA ARETOAk parte hartzaile bati/batzuei lana garatzeko egonaldi artistiko bat eta 500€ko laguntza eskainiko dizkie. Datak bi aldeen artean adostuko dituzte.
11. Antolakuntzak uztailan komunikatuko du zein proposamen aukeratu diren.

---

**BARATZA ARETOA** kultura, oro har, eta kultura, bereziki, Arte Eszeniko Garaikideak sustatzea helburu duen topagune burujabea da. Ikerketa artistikoa eta esperimentazioa bultzatzea du ardatz nagusizat.

[www.salabaratza.com](http://www.salabaratza.com)

### **FACTORÍA DE FUEGOS**

Gasteizen sorkuntza eta garapen eszeniko garaikidea bultzatzen dituen elkarte artistiko kulturala da.

[www.factoriadefuegos.com](http://www.factoriadefuegos.com)